

## ALTZAKO NATURAKO BOSTGARREN ARGAZKI RALLYAREN OINARRIAK

Datorren **Maiatzaren 12an, igandean, Altzako Naturako 5. Argazki Rallya** deitzen da argazkizale guztiei zuzendua, Gipuzkoako Argazkilari Elkarteak, Altzako Historia Mintegiak eta Donostia Kulturak antolatuta.

**1.- IZEN-EMATEA.** Doan izango da.

- Maiatzak 10a arte, Casares Kultur Etxean bere ohiko ordutegietan.
- Egunean bertan irteera tokian (Gaiztarro auzoko Aterpean) 9:30etatik 10:00ak arte.
- [casareskulturetxea@donostia.eus](mailto:casareskulturetxea@donostia.eus) helbidera idatziz, izen-abizenak, parte hartu nahi den kategoria, telefonoa eta emaila adieraziz.

**2.- PARTE-HARTZAILEAK.** Argazkilaritza maite duen eta kamara digital baten jabe den edonork parte har dezake.

**A Kategoria: Haurrak (14 urte arte).**

**B Kategoria: Helduak (15 urtetik aurrera).**

Rallya **10:00etatik 14:00tara egingo da Gaiztarro auzoan.** 12:00tan, Gaiztarro auzoko Aterpean, parte-hartzaile guztiek hamaiketako batetaz gozatzeko aukera izango dute.

Lehiaketaren egun berean, 10:00etatik 11:00tara, haur tailer bat egingo da interesa duten umeentzako. Bertan argazkigintzaren oinarritzko ideiak azalduko dira. Parte-hartzaileek Argazkilari Elkarteko monitoreen laguntza izango dute sortzen zaizkien zalantzak argitu eta argazkiak nola egin azaltzeko.

Lehiaketa honetan parte-hartzeak oinarri hauek nahiz antolatzaileek arrazoi justifikatuengatik egin litzazketen aldaketak onartzea dakar.

**3.- GAIK.** Lehiaketaren leitmotiv-a gure gertuko natura eta paisaia dira. Esparru horretan, lehiaketaren egun berean, bost gai emango dira ibilbidearen hasieran.

**4.- ARGAZKIEN FORMATUA ETA AURKEZPENA.** Argazkiak lehiaketaren egun bertan ateratakoak izan behar dira zehaztutako ordutegian eta proposatutako ibilbidean. Errealizazioa, originaltasuna, berezkotasuna eta egokitasuna balioetsiko dira. Ondorioz, argazki egoki bat ateratzeko ez da beharrezkoa izango kamera garesti edo eta ekipamendu sofistikatu bat edukitzea. JPG formatuan aurkeztuko dira, gutxienezko konpresioan eta gehienezko kalitatea (gutxienez 2 megapixel, gehienez 5 megapixel). Argazkiak editatu daitezke, baina ezingo da kanpoko elementurik erantsi.

**Maiatzaren 17a baino lehen** parte-hartzaile bakoitzak bere bost argazkiak (gai bakoitzeko bat) aurkeztu beharko ditu. CD edo pendrive batean Casares Kultur Etxean (ohiko ordutegian) edo [rallycasares@gmail.com](mailto:rallycasares@gmail.com) helbidera bidaliz, betiere aipatutako epearen barruan.

**5.- EPAIMAHAI A.** Erakunde antolatzailea eta Gipuzkoako Argazkilari Elkarteko kideek osatutako epaimahaiak argazki guztiak ebaluatuko dituzte. Epai aipela ezina izango da eta maiatzaren 31ean jakinaraziko da.

**6.- SARIAK.**

**A Kategoria:** Parte-hartzaile bakoitzari opari bat emango zaio.

**B Kategoria:** Gai bakoitzeko irabazleak trofeo bat jasoko du.

Egile bakoitzak sari bakar bat aukeratu ahal izango du. Antolatzaileek saridunen jatorrizko artxiboak eskatzeko ahalmena izango dute.

**7.- SARI BANAKETA.** Behin sailkapena ezagututa, saridunei pertsonalki jakinaraziko zaie. Sari banaketa maiatzaren 31, ostirala, arratsaldeko 19:00etan Tomasene Kultur etxean izango da. Lan irabazleak eta hautatutakoak proiektio batean ikusi ahal izango dira eta bertaratzen direnentzako lunch txiki bat prestatuko da.